



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EIBARKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eibarko Udalaren 2006ko ekitaldiaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. HKEEren lanak Udala bera ez ezik, bere 5 Erakunde Autonomoak eta Inmobiliaria Municipal Eibarresa, SA Sozietate Publikoa besarkatzen ditu.

Udalaren legezkontasunari buruzko atalean, Epaitegiaren iritzia aldekoa da udalaren ekonomia-finantza jarduerari ezargarria zaion arautegia betetzeari dagokionez; nolana dela ere, hainbat ez betetze aipatu ditu eta horien artean azpimarratzekoak dira:

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak ez duela bere zerbitzura diharduen langileriaren araubidea argitaratu eta Euskal Erakundeetako funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen Akordioaren ezarpena onetsi zuela (Udalhitz); ordea, akordio hori ez zen dagokion aldizkari ofizialean argitaratu. Argitalpen eza honek, kasu bietan, indarrean sartzea eta dagozkion ondorio juridikoak sortzea eragozten du. Atal honetan bertan LZ Euskal Funtzio Publikoaren Legeak eskatzen duenera egokitzeari dagozkion bestelako akatsak azaleratu dira; baita, txanda-kontratu izenekoaren erabilera okerrari eta aldi baterako lan kontratupeko langileria kontratatzean gauzatutako prozedurei buruzkoak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu ez dutenak.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak ezargarria den legeriaren hainbat ez betetze jaso ditu: Honela, bada, udalerriko hiri gunean garraio publikoaren emakida kontratua egitez luzatu dela jaso da, dagokion luzapena gauzatu gabe. Matxariako SAPUI3 urbanizatzeko lanetan 3,1 milioi euroko hainbat aldaketa gauzatu dira; kopurua kontutan izanik (esleipen prezioaren % 56,4) kontratuaren xedea desitxuratzea eragin dute. Berebat, HKEEk ez du uste Administrazio Publikoen Kontratuen Legeari egokitzen zaionik Udalak Gipuzkoako Urak, SA sozietate publikoarekin izenpetutako



lankidetzaz hitzarmena, ura hornitzeko sarea ordezkatu eta Juan Gisasola kaleko espaloiko zoladura zaharberritzeko.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du kontuaren aurkezpen eta edukiari dagokionez, hainbat salbuespen egin dituela: Kirolaren Patronatuak 2002 baino lehenago erositako ondasunak ibilgetuan ez jaso izana; San Andres Fundazioaren ibilgetuko balioak ez arautu izana, egiaztaketa fisikorik gabe eta balioak agiri bidezko euskarriekin egiaztatu gabe gauzatutakoa; eta Musika Eskola, Kirolaren Patronatu eta Udal Euskaltegiaren ibilgetua ez amortizatu izana. Honez gainera, Udalaren Diruzaintza Geldikina 310 mila euroan gehitu eta San Andres Fundazioarena 54 mila euroan urritzen duten hainbat doiketa proposatu dira:

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu antolamendu, aurrekontu, kontabilitate, diru-sarrera, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, egoera finantzarioari dagokionez esan behar dugu Udalaren magnitude ekonomiko nagusien ibilbide onak, nahiz inbertsio maila altuei aurre egin behar dien, 2005eko abenduan Diruzaintza Geldikina ekitaldiaren sarrera arrunten % 50 baino altuagoa izatea eragin duela eta horrek finantza osasun oso ona izatea bideratu duela.